

EUSKO-GAZTEDI TALDEA, ITZIAR-UNTZ

Bulartsua, kemenez josia datorkigu gaur

Luis Obreros dalako gizartearen, topatuzten naiz, Eraso tar Jon Luis lagunarekin. Itziar-untzeko Martxa eratuduna da. Gaztea, Ilusioz josia. Bere aldamean Lazkano tar Joseba Andoni. Bertsolari bene-benetakoa auxe. Ala alkartzan gera, Itziar'ko bezpera auetantxe. Gazteak lanari eragiten. Sasola barra-barra. Euskotar gaztediak eragiten baitio here sinismenari, bildurrik gabe. Esaten dizuet ere, gipuzkoarrak bakarrik ez gerala arkituko Itziar'ko Martzan. Baite- re aldamekoak alkar izango ditugu.

—Goruntz dijoala deritzaizu?— Erasori galdera.

—Baietz esaten dizut. 1952'garren urtean asi genduen gure Itziar' untz joatea, irureun bat alkartu gina... —parrari ematen dio— Bañan gaur bederatzit eunen bat alkartuko geralaokan nago.

—Geienak, zein bat urtekoak dira?—

—Ogei urteok. Naiz berrogeitiki gorakoak agertzen dira. Ta esango dizut auetrek izan dirala amabost urteko Martxa aldia egiten danean, festa aundi bat egin bear dala deriotenak. Ta oiekin nago ere.

—Asko atzeratzen al dira Martxa bein asi ta?—

—Naiz eta batzun-batzuek ezin iritzi, or ditugu anbulantzi edo furgonetak alako etorkizunari itxoegiten daudenak. Bañan danok Itziar' en arkitzen gera... Eta ikusiezazu gazteen umorea, alako koñxeari

“coches escoba” deitzen bai diote...

—Eta zuk, Lazkano, tira aguro bertso berri bat... A, bai. Asi da.

—Maitzan amabosta, Donostiatikan, Itziarraño oñez, guaz menditikan.

—Birjiña, zuri, agur bat egiteatikan, erregu egin zazu, Ama, gutatikan.

—Befondeizula, ta segi dezagun. Ideia zeñena izantzan alako Martxa cratzeko?

—Luistarren mendiko taldekoak —dio Eraso'k— baitere Aita Muro'k. Onen laguntzak eragin zigun oitura bat berpixtuzera. Itziar en izaten zan XX “Cofradia de Navegantes” en egiteari buru ematera. Amari egiten baijotzen aspalditik omenaldi agurgarribat. Itziar'koa baita ezagutu deguen Birjiñ zaarrena Gipuzkoan beintzat. Eta esan nuke Euskal-erria guzian ere.

—Oso ezagutua gure errian, ordun?

—Marilleen Ama, Zeñek itxasotik agur bat zor ez dio? Deba'ko inguruak eta abar, nola ez maitatu Itziar'ko Mirabea?... A! Itziar Unibersidade bat zan Deba ingurutxo bat zuala. Bañan kanpotarrak, egokiako zuten Deba, Itziar baño ta ala, baserritarrak goian geldituz, Deba'k erri bezela gorputza artu zuen, Unibersidade zarratik itzuliaz, eta bizitasun berria artuaz. Itziar'ko Unibersidadea, Andutz'ko mallatan gelditu zan...

Lazkano, ondolik asi zait:

—Agur egin dalogun, gu ara joatean, burua makurtuta, umil ta pakean.

—Eztaigu damutuko, egunen batean, Berak sartuko gaitu, Zeruko atean.

—Nekea, noiz nabaitzen dezute? Eraso'ri.

—Goizeko ordubietatik, iruretara. Arratsaldeko zortziretan ateratzen baigera, ta nekeak loalearekin, Askizu'tik, Zumaiako Zuloaga zigor jotzen digu...

Emen lengoa berriz:

—Izarrak argiz betiak eta, agerida illargia,

—Pauso txarrak asko eginda, gorputzian izardia.

—Orio iya alderaturik, bada zer baiten premia

—Soseguakin kendu dezagun, gose ta egarria.

* * *

—Zarauz eta Zumai utzi, berriz aldapa jotzen

—Oñak minbera jartzen dira ta, gorputza berriz nekatzen.

—Bañan altura arrapatzian, Eleiza zaigu agertzen,

—Itziar'ko Ama zoragarria, asi gaitian agurtzen.

* * *

—Ez al da gelegizko zuen naia, elizako gauzetan, apaizak izango baziafateke bezela? Nere ustez, ez dala aibestekoa izan bear. Gaur Konzilioak kalea danena dala aitortu du.

—Gure Martxa ez uste “proselitismokoa” dala. Gau agurgarri bati buru ematia baijik. Aruntz guaz, Itziar'a. Antxe bakoitzak erabakiko du bere barrengo eztabaida.

gaur eta Arantzazuko Amari biar agur egingo diona. Bizi nai duen gaztedi bizkor batek, atzeratu gabe here erruak aitortzen duana... Amari Libertatea eta Justizia eskatzen diona.

—Itziar'ko Birjiñak influentziarik izan aldu zuen joeran?

—Bai. Kanpotar ezkonduartean izan du-dio Eraso'k—. Etzuten arrik eta gizona gurekin etortzen




FOTO APARICIO

Bitartean, bidetxigor gora, txistua, abestia ta nai duenak otoltza. Nere ustez otoltza da, abestia ta txistua. Bañan izango dira ala ulertuko ez dutenak, Nere ustez gaztediak par-irria bear baitu. Gazteen mintza ori izan bear dualako. Nekea urbil duala ala iritzi da Itziar'a. Sendo ta zindo, Pakearen billa etorri gerala. Gazteen gizontasuna nabaitzen baita. Kristoren Pakearen billa. Kondizio gabeko Pakea naidegulako.

zitzagun. Alabatxo bat izantzuten eta Itziar izena jarri zion. Martxa autxek dirala ta Itziar izena zabalzen ari da gure artean...

Parrari eman diogu.

—Bañan ondo-ondoan berriz Lazkano:

—Zure semeak gera, martx ori astera

—Ama bixitatzerá, berriro osterá

—Poz aundiakin goazen, bera ikustera

—Ori lagun badegu, galduko ez gera.

* * *


—Bai, arrazoi dezu. Egizko lasaltasunaren billa juan bear degu. Zigorrezko pakearen aurka, Kristoren libertatearen Pakera baijik.

—Ortze dituz, goizeko zazpiretan Itziar'ko Eleizan, Iritxi dira.

Gaztediarentzat nekatuta etortzia zer da? Ementxe, trebeak, alai, bildurrik gabeko gaztedia. Borondate onekoa bañan jeioa berekin daramana. Itziar'ko Amari

Eta gaur Deba'n Euskal-Jai ederri. Oargi'k eratuta. Anaitasun auxe mantentzen ba degu, esandezakegu galduko ez gerala.

TOLARETXIPI X



“ZERUKO ARGIA” - Oquendo, 22 - SAN SEBASTIAN

FRANQUEO CONCERTADO N.º 3/ 21